



Medidas sanitarias preventivas en las nuevas plantaciones

La enfermedad conocida como **Fuego Bacteriano** es producida por la bacteria *Erwinia amylovora* y afecta a especies de la familia de las Rosáceas tanto silvestres como cultivadas, y entre estas últimas están los manzanos, perales, membrilleros y nísperos.

El Fuego Bacteriano es una enfermedad de cuarentena dentro de la Unión Europea, y está demostrado que las medidas preventivas son las más eficaces para evitar la difusión y los daños producidos por el mismo. El Territorio Histórico de Álava mantiene el estatus de Zona Protegida a Fuego Bacteriano lo que implica que **en nuestro territorio se ha de plantar exclusivamente material vegetal sano de las especies sensibles procedentes de viveros de Zonas Protegidas o de las llamadas Zonas Tampón autorizadas dentro de las Zonas No Protegidas. Los viveros han de contar con autorización para la emisión de pasaporte ZP.** El material vegetal utilizado ha de ir acompañado de un Pasaporte Fitosanitario ZP (España o b.2) e igualmente este Pasaporte Fitosanitarios ZP (España o b.2) ha de incluirse en los documentos comerciales: albaranes y/o facturas.

En la actualidad son Zonas Protegidas a esta enfermedad, además del Territorio Histórico de Álava, el Territorio Histórico de Bizkaia, las Comunidades Autónomas de Galicia, Asturias, Cantabria, Cataluña (excepto las comarcas de Sagriá, Noguera, Urgell, Pla d'Ugell y Garrigues), Valencia (excepto las comarcas de Alto Vinalopó y Medio Vinalopó).

Los viveros situados en Zonas Tampón y otras informaciones sobre el fuego Bacteriano pueden consultarse en la página web **www.araba.eus** dentro del apartado de enfermedades de cuarentena en la sección de Sanidad Vegetal del departamento de Agricultura.



Landaketa berrietan kontuan hartu beharreko **osasun neurri prebentiboak**

Su gorrina izenarekin ezagutzen den gaixotasuna *Erwinia amilovora* bakterioak eragiten du eta arrosaren familiako espeziak kaltetzen, basatiak zein landatuak izan, eta azken hauen artean daude sagarrondoak, madariondoak, irasagarrondoak eta mizpirondoak.

Su gorrina berrogeialdiko gaixotasuna da Europa Batasunaren barruan, eta egiaztatuta dago prebentzio neurriak hartzea eraginkorra dela hura zabaldu eta kalteak sortaraz ez ditzan. Arabako Lurralde Historikoa su gorrinatik babestutako zonaren estatusa dauka, eta horrek esan nahi du **gure lurraldean bakarrik landatu behar dela landare material osasuntsua, hain zuzen, zona babestuetako edo tanpoi zona, zona ez babestuen barruan baimenduak, deritzenetako haztegiatako espezie sentikorrenak. Haztegiek baimena eduki beharko dute ZP pasaporteak jaulkitzeko**. Erabiltzen den landare materialarekin batera pasaporte fitosanitarioa (ZP) eduki behar da (Espainia edo b.2) eta, era berean, pasaporte fitosanitario (ZP) (Espainia edo b.2) horrek merkataritza agirien artean egon behar du: albaranak edo fakturak.

Gaur egun, gaixotasun horrekiko zona babestuak dira, Espainian, Arabako Lurralde Historikoz gain, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta autonomia erkidego hauek: Galizia, Asturias, Kantabria, Katalunia (Sagriá, Noguera, Urgell, Pla d'Ugell eta Garrigues eskualdeak izan ezik) eta Valentzia (Alto Vinalopó eta Medio Vinalopó eskualdeak izan ezik).

Tanpoi zonetan kokatuta dauden haztegiak eta su gorrinari buruzko bestelako argibideak **www.araba.eus** web orrian ikus daitezke, Nekazaritza Saileko Landare osasunaren atalean, berrogeialdiko gaixotasunen puntua-
ren barruan.